

KLIMATEK I+B+G:KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEKO I+G PROIEKTUAK, BERRIKUNTZA ETA FROGATZEA

Xedea.

Laguntza hauen xedea da Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategiaren 2. Helburua, «Euskadik klima aldaketaren aurrean erresilentzia izan dezan bermatzea», lortzen erabakimenez laguntzen duten proiektuak egitea sustatzea.

Proiektuen iraupena:

Deialdian hautatutako proiektuak 2016ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira.

Finantzabidea:

Laguntzaren zenbatekoa gehienez 50.000 eurokoa izango da (BEZa kanpo) proiektu bakoitzerako.

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin harreman funtzionariala, estatutarioa edo kontratu bidezkoa izatea eskaera aurkeztu denetik proiektua gauzatzen den denbora osoan.

Ikerketa taldeko kideek bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin harreman funtzionariala, estatutarioa edo kontratu bidezkoa izatea eskaera aurkeztu denean.
- Beste erakunde batzuetakoak diren ikerketa taldeko kideek idatziz aurkeztu beharko dute proiektu honetan parte hartzeko baimena, eta bertan adieraziko dute baldintzak betetzen dituztela.
- Ikerketa taldean ezin dute parte hartu beste proiektu batzuen ardura duten eta obra edo zerbitzu kontratua duten ikertzaileak.

GARRANTZITSUA: Laguntza gauzatzen den bitartean UPV/EHUrekin duten harremana amaitzen zaien kideek ezingo dute gasturik egotzi egoera horrek dirauen bitartean. Ikertzaile nagusiaren ardura izango da laguntza gauzatzen den bitartean izaten diren baje berri Ikerketaren arloko Errektoreordetzari ematea.

Aurrekontua egiteko jarraibideak:

BERTAKO LANGILEEN KOSTUAK	
Katedraduna	41,00 €/h
Titularra	29,00 €/h
Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak	14,90 €/h
Ramón y Cajal	0 €/h
Juan de la Cierva	0 €/h
Laguntzaileak	29,60€/h.
Agregatuak	27,70 €/h

Atxikiak	23,30 €/h
Arduraldi osoko elkartuak	Ikerketaren arloko Errektoreordetzan galdetu
Ikerbasque:	0 €/h
LCT kontratatuak (MINECOren proiektuen organikak)*	Ezin dute parte hartu.
LIU lanaldi mugatua	0 €/h
LIU lanaldi osoan	Ikerketaren arloko Errektoreordetzan galdetu

GARRANTZITSUA: Ikerketarako gehieneko ordu kopurua urteko 1.100 ordu dira. Hala ere, aurrekontua egitean delako ikertzaileak guztira zenbat ikerketa proiektutan parte hartzen duen izan behar da kontuan.

KONTRATATUTAKO LANGILEEN KOSTUAK

Langileak kontratatu beharra izanez gero (PIC Doktorea / Lizentziatua) jarraian adierazitako orduko kostuaren arabera egingo da kalkulua.

KONTRATATUTAKO LANGILEEN KOSTUAK	
PIC doktorea	26,75 euro orduko. Horri erantsi behar zaio 0,66 euro orduko kontratua amaitzean lan egindako urte bakoitzeko (baldin eta kontratatuak uko egin ez badio), hau da, 27,40 euro orduko.
PIC ez doktorea	23,57 euro orduko. Horri erantsi behar zaio 0,58 euro orduko kontratua amaitzean lan egindako urte bakoitzeko (baldin eta kontratatuak uko egin ez badio), hau da, 24,15 euro orduko.

GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko ebazpenean, UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garatzeko araudia argitaratzeko agindua ematekoa denean, xedatutakoari jarraituz, irakasle eta ikertzaileek **ezingo dute ordainsaririk jaso nomina bidez deialdi honen bitartez.**

Laguntza eskaerak aurkeztea, eta epeak:

1.- Eskaerak aurkezteko epea 2016ko martxoaren 11n, 13:00etan, amaituko da.

2.- Eskaintza osoa euskarri informatikoan aurkeztuko da, IHOBEn bulegoetan:

Urkixo zumarkalea 36, 6 - 48011 Bilbo (Bizkaia).

3.- Laguntza eskaerak IHOBEn aurkeztuko dira, I. eranskinak dakarren eredu teknikoeta ekonomikoari jarraituz.

Eskaerak UPV/EHUUn aurkezteko prozedura:

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	TRAMITEA
2016ko martxoak 4	Ikertzaile nagusia	Ikerketa taldea adierazita "I. eranskina" Excela bidaltzea convocatorias.dgi@ehu.eus
2016ko martxoak 7	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Taldearen azterketaren emaitza jakinaraztea
2016ko martxoak 8 Egun horretatik aurrera, ezin izango da bermatu legezko ordezkariaren abala eduki behar duen dokumentazioa epe barruan bidaliko denik.	Ikertzaile nagusia	Eskaera orria beteta bidaltzea. Bai eta eskaeraren II. eranskina ere (II. eranskina legezko ordezkariaren eta laburpen honetan agertzen diren datuen arabera beteko da. II. eranskinak eskatzailearen sinadura behar du legezko ordezkariak sinatu aurretik)
2016ko martxoak 10	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	II. eranskina bidaltzea legezko ordezkariak sinatuta
2016ko martxoak 11	Ikertzaile nagusia	Eskaera osoa eta memoria zientifiko eta ekonomikoa bidaltzea convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera (artxibatzeko).

GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiaren ardura izango da eskaera deialdiaren oinarrien arabera IHOBEn zuzen eta epe barruan aurkeztea.

Eskaera betetzeko UPV/EHUren datuak: (II. eranskina)

Eskaera betetzeko beharrezkoak diren erakundeari buruzko datuak (UPV/EHUrenak) hauek dira:

- **Legezko ordezkaria:** Fernando Plazaola Muguruza
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea
- **IFK:** Q-48/18001-B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta kodea:** 48940
- **Hiria:** Leioa
- **Harremanetarako helbide elektronikoa:** convocatorias.dgi@ehu.eus

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

- **Telefonoa:** 94 601 80 08
- **Faxa:** 94 601 35 50
- **Helbide elektronikoa:** convocatorias.dgi@ehu.eus

Kanpoan harremanetan jartzeko:

- **Deialdia egiten duen organoa:** IHOBEn - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

- Ebatziko duen erakundea: Organismo Autonomoak, Erakunde eta Sozietate Publikoak
- Aurrez aurreko harremanetarako: Urkixo zumarkalea 36, 6 - 48011 BILBO
- Harremanetarako telefonoa: 94 423 07 43. Faxe: 94 423 59 00.

Informazio gehiago:

http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/ayuda_subvencion/ihobe_klimatek_2016/es_ihobe_/es_arch.html